

OSTIRALA, 2024ko UZTAILAREN 28a

Sanpedroak

2024

PASAIA

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

Morea, kolore guztiek San Pedron

**Atzo hasi ziren San Pedroko festak,
Jose Inazio Murua eta LGTBIQ+ pertsonak
ardatz izan zituen txupinazoan.
Igandera arte, denetik herri morean • 27-30**

PASAIKO ITSAS ARRANTZA – Blas de Lezo LHII



GORA SANPEDROAK!

OINARRIZKO, ERDI ETA GOI ZIKLOAK
NABIGAZIOA - MAKINAK - URPEKARITZA

Marinos kalea, 2. 20110 Pasaia. Tel.: 943 40 40 05
blasdelezo@pasaiaeskola.net - www.pasaiaeskola.net





Imanol Saiz

«Eman diodana baino gehiago eman dit San Pedrok niri»

JOSE INAZIO MURUA FESTETAKO OMENDUA

IMANOL SAIZ GOMEZ DE SEGURA

Hamarkada luzez saltsa guztietan ibilitakoa da, eta atzo merezitako omenaldia egin zion herriak. Sanpedroen txupinazoa bota zuen, hunkituta.

Nola jaso duzu txupina botatzeko gonbita?

Oso pozik. Denoi gustatzen zaigu aitor-tza jasotzea. Urte asko daramat herri honetan, nire bizitzako hiru laurde-

nak hemen pasatu ditut bizitzen, eta oraindik hemen jarraitzen dut. Asmo handiak jarri ditut herriari zer edo zer emateko. Saltsa guztietan ibili naiz hamarkada hauetan, eta atzoko omenaldi hori uste dut ez dela niretzako bakarrik [astelehenean izan zen elkarrizketa hau], ni bezala aritu diren pertsonentzako omenaldia da. Horien omenez botako dut txupinazoa. Herriaren alde lan egiten ari diren pertsonak, horiek baitira herria, horiek egiten dute he-

rria, horiek ematen diote nortasuna San Pedrori. Hori izango da nire mezua. **Jaiotzez erreteriarra zara, baina sanpedrotarra zarela ikus daiteke.**

Bai, bai, sanpedrotarra naiz, harro diot hori. Joaten naizen lekuan beti nire zaititxoa jartzen saiatzen naiz. Garrantzitsua da joaten zaren lekuan ekarpena egitea. Bizitzan baldintza asko daude, eta kasu honetan bizitzak hona ekarri ninduen, eta primeran egokitu nintzen. Familia egin dut hemen, bi alaba eta bi biloba ditut, denak sanpedrotarrak.

Nola jaso zintuen herriak?

Primeran, lehen egunetik eskuak zabal-zabalik izan dituzte. Ziur naiz, herriak nik eman diodana baino gehiago eman didala San Pedrok niri. Ez dakit asmatu dudan, jarri dudan guztia probetxuzkoa izan ote den, baina dena eman dut zentzu horretan, eta horrela jarraituko dut.

Zer ematen dizu San Pedron bizitza?

Nik ematen diodana ematen dit San Pedrok. Nire herria da, oraingoa, eta hemen nagoen bitartean eta hemen orduak eta egunak pasatzen ditudan bitartean, emateko prest nago. Jarrera baikorra dut, garrantzitsua baita jarrera. Herrikideak entzun, haiei eman, bakoitzak ahal duenetik. Keinu txikiak oso garrantzitsuak dira.

Mezurik jaietarako herrikideei?

Herria egiten jarraitu behar dugula da nire mezu nagusia. Eta inolako gorrotorik gabeko jaiak izan ditzagula. Herriaren alde jokatu nahi badugu, ez dugu jokatu behar bakarrik arraunean edo futboleant, beste toki batzuetan ere jokatu behar da. ■

azken txanpa!
etxera
ANTXETA | HERRIKO TABERNA

URTEK
ITURGINTZA
UR, GAS ETA BERO INSTALAZIOAK
Ondo pasa jaiak!
Herriko plaza 11 • 20110 San Pedro
axienbil@hotmail.com • Tel.: 618 20 14 50



lazko Piratakadaren proba bateko irudi bat. HITZA

'El conquistador' saioa, sanpedrotar erara

I. SAIZ

Etza da Karibeko paradisu hon-dartza bat, ezta Patagoniako ibai edo mendi ikusgarri bat, baina gaur *El Conquistador del Fin del Mundo* telebistako saioaren itxura hartuko du San Pedroko pilotalekuak. EITBko saio famatua oinarri hartuta, Piratakada izeneko proba sortan lehiatuko dira 11 urtetik gorako sanpedrotar asko. Taldeak prest dituzte dagoeneko, kapitainen zain dira. 16:30ean jakinaraziko diete tal-

deei nork gidatuko dituen gaurko probetan, orduan hasiko da ikurrina irabazteko lehia bizia.

Orain dela hiru urte abiatu zuen egitasmoa guraso talde batek. Nerea Enbilek hastapenak gogorarazi ditu: «Pandemia garaian, kalera ateratzen hasi ginenean, haur eta nerabe asko kaleran ikusi genituen ikurrina batekin, *El Conquis*-eko probak egiten beraien kabuz. Lanean jarri ginen orduan guraso batzuk, oso gogotsu ikusi genituelako, eta haien aisialdian hutsune bat ikusi genuelako orduan».

EITBko saioaren «ia erreplika» bat da gaur ikusiko dena, «oso-oso antzekoa» izango dela dio sanpedrotarrak. Hiru urte hauetan telebistako saioan klasiko bilakatu diren proba asko errepikatuko dituzte gaur, kasu, labirintoaren proba ospetsua. «Telebistan egiten dituzten bezalaxe egingo ditugu probak. Labirintoa, sokak, yumar-ak... Denetik izango da urte honetan ere. Herrira ekarriko dugu berriro *Conquis*», zehaztu du Enbilek.

Telebistan bezala, taldetan lehiatuko dira partaideak, kolorez bereizitako hirutan. «Aurten Barbarin taldea erori egin da, baina haien orde helduen talde bat ariko da. Karramarroak, Antxetak eta Begihaundiak lehiatuko dira. Aurreko edizioak ikusita heldu askok parte hartu nahi dutela jakinarazi digute». Handitzen eta errotzen jarraitzen du egitasmoak, beraz.

Asteartean aurkeztu zituzten taldeak. Haurrek aurkezpen bideo bat aurkeztu behar izan dute, eta aurkezpenean horiekin guztiekin osatutako bideo bat helarazi zieten sanpedrotarrei, motorrak berotzeko.

«Oso ikusgarria»

Enbilek aitortu du proba guztiak antolatzea lan mardula dela, baina «zalan-tzarik gabe», merezi duela dio: «Jendeak asko gozatzen du, giroa eta lehia ederrak dira». Gaurko probak ikustera gonbidatu ditu herritarrak, «gauza berezia eta potentea» izango delako Piratakada haren hitzetan. «Oso entretengarria izango da, oso ikusgarria. Denek primeran pasako dute». ■

zure taxia!

Taxi Jaizkibel

Donibane. Antxo.
San Pedro. Trintxerpe. Lezo

943.39.14.14





EGITARAU OSOA HEMEN

labur.eus.oarsoagenda



Olaia Gerendiain

ARTZAIN ETA INUDEAK, KOLORE BIZIZ

BIHAR ETA ETZI. Artzain eta inudeen konpartsek asteburuko goizak girotuko dituzte. Lehenak ateratzen haurrak izango dira, biharko (larunbata) 12:00etan. Helduen txanda etzirako gorde dute, eguerditik hasiko baitira sanpedroen azken egunari ukitu berezia ematen. Dozenaka sanpedrotar aterako dira bi desfileetan, erro sendoak dituen ohitura baita artzain eta inudeena.

PORRUSALDA TXARANGA, IGANDEAREKIN

ETZI. Txikienek badituzte hainbat txoko San Pedroko festetan. Horietako bat da Porrusalda Txaranga. Zuri-gorritz jantzita, puxikekin eta musikarekin igande goizean orotaraziko dute jairako eskubidea goiz-goizetik hasten dela. Ondoan izango dituzte gaztetxoek euren guraso eta hurbilekoak. 10:00etan ekingo diote bira koloretsuari.



Urko Etxebeste

EUSKAL ROCKAREN HISTORIA, OHOLTZAN

GAUR. Delirium Tremens talde mutrikuarra oholza nagusira igoko da gauerdia pasata (00:30). Euskal rockaren historia bizia da taldea, eta Euskal Herritik egiten ari diren birarekin itsasoko kresaladun doinuak ekarriko dituzte San Pedrorra. Haien aurretik (23:00) hurbilagoko doinuak ekarriko dituzte Astelehen Goizak oiartzuarrek. Askok kontzertua ikusiko dute, gazte askok ikasiko dute.



DELIRIUM TREMENS



AUPA SAN PEDRO!

*Herriko plaza, 8.
Pasai San Pedro
Tel.: 943 39 38 12*



**EZ
ERASO SEXISTARIK,
EZ ERASO
LGTBFOBORIK!**

PASAIKO UDALA


